Inguruko Informazioa

AGIRETAMENDI Mendi hau Mutiloako udalerrian dago, Ergoena auzoan, Peatza eta herri kaxkoaren artean. Haren hegalean baserri historiko hauek daude: Agireta, Mendizabalazpikoa, Mendizabalgarakoa, Izagirregarakoa, Izagirreazpikoa eta desagertutako Altamira. Ez ditugu ahaztu behar gaur egun behea jota dauden Eskolaetxe eta Kantiña.

BARRENOLA Izen honekin ezagutzen da Troi haranaren beheko aldean dagoen baserria, Mutiloan. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran garrantzi handiko meatzegune bilakatu zen. Izan ere, bertan elkartzen ziren Zeraingo Apostolatza eta Mutiloako Lenkaburutik zetozen meabideak. Barrenolan mea garbitu eta Ormaiztegira garraiatzen zen.

KOROSTOLA Lenkaburu mendiaren ekialdeko isurialdean dagoen zabalgune bat da Korostola, Mutiloa eta Zerain udalerrien artean. Gaur egun Legazpi eta Zerain lotzen dituen GI-3520 errepideak aldenik alde gurutzatzen du. Antzinako bidea ere, Loidi edo Aztiriko gainetik Zerainera zihoana, bertatik igarotzen zen.

TROI Haran estu eta malkartsu hau Lenkaburu mendiaren ekialdeko isurialdean dago. Iparraldetik, Erdokazabaleta sakonarekin mugatzen du; mendebaldetik, Lezandiaga sakonarekin; hegoaldetik, Gezurmuño eta Ollargain meatze guneekin; eta iparraldetik, Barrenola baserriarekin, guztiak Mutiloako udalerrian.

Haranaren azpiko aldean hiru eraikin daude (Orue, Troigarakoa eta Troiazpikoa, azken hori behea jota). Horietako bi XX. mendearen erdialdera arte errotak izan dira; Troi errekak zuen emariaz eta indarraz baliatzen ziren. Esan behar da, bestalde, Troi haranean mea intentsiboki ustiatu izan dela XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen hasierara arte.

Información del lugar


AGIRETAMENDI Pequeño monte perteneciente al municipio de Mutiloa, situado en el barrio de Ergoena, entre Peatza o Monte de las Veneras y el casco urbano del mismo municipio. En su ladera se sitúan los históricos caseríos de Agireta, Mendizabalazpikoa, Mendizabalgarakoa, Izagirregarakoa, Izagirreazpikoa y el desaparecido Altamira, así como los edificios Eskolaetxe y Kantiña.

BARRENOLA Nombre como se conoce el caserío situado en la parte bajera del valle de Troi, en Mutiloa. A finales del siglo XIX y principios del XX se convirtió en un enclave minero de gran importancia debido a que aquí confluía el mineral procedente de las minas de Apostolatza de Zerain y de las minas de Lenkaburu de Mutiloa, donde se lavaba y se transportaba a Ormaiztegi.

KOROSTOLA Término situado entre los municipios de Mutiloa y Zerain en las estribaciones orientales del monte Lenkaburu, en una zona donde se abre una pequeña explanada. Actualmente lo atraviesa la carretera comarcal GI-3520 que comunica Legazpi con Zerain. El camino antiguo público que bajaba del alto de Loidi o Aztiri hacia Zerain también pasaba por este lugar.

TROI Valle angosto y de fuerte pendiente situado en las estribaciones del monte Lenkaburu, que limita al norte con el término de Erdokazabaleta, al oeste con el término de Lezandiaga, al sur con la zona minera de Gezurmuño y Ollargain, y al norte con el caserío de Barrenola, todos ellos pertenecientes al municipio de Mutiloa.

La parte inferior del valle cuenta con tres edificios diseminados (Orue, Troigarakoa y Troiazpikoa, este último en ruinas), de los cuales dos han funcionado hasta mediados del siglo XX como molinos harineros, gracias al abundante caudal que traía la regata. El valle de Troi ha sido objeto de una intensa actividad minera desde finales del siglo XIX hasta finales del siglo XX.







1. Barrenola (Barnaola)



3. Mañastegizar ingurua



5. Lierniko Ermita



7. Mutiloako ikuspegia



2. Ugarte ingurua



4. Agiretamendi (Agitamendi)



6. Aizpee erreka (Zerain erreka)



8. Meategi gunea

